

	<b>DIRULAGUNTZA ESKAEREN OINARRIAK</b>	
---	--	--

## **SAKANAKO TALDE BERRIEI DIRULAGUNTZA EMATEKO DEIALDIA**

### **1.- Lehenengoa: helburua**

1.- Deialdi honen helburua Sakanako Talde berriei sortze gastuetan laguntzea da. Oinarriok arautzen dituzten diru-laguntzak aurrekontu erabilgarriaren arabera izanen dira.

### **2.- Bigarrena: bete beharreko baldintzak**

2.1.- Kirol taldea Sakanakoa izatea.  
2.2.- Talde hauei, Sakanako Mankomunitateak, elkarlana eskatu ahal die bere jarduerak antolatzeko.

### **3.- Hirugarrena: aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

3.1. Eskaera orria guztiz betea.  
3.2. Taldearen estatutuen fotokopia  
3.3. Taldearen IFKren fotokopia

**4.- Laugarrena: Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea:** Balorazio batzordeak, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten badu, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluak arautzen duen bezala. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

### **5.- Bostgarrena: Balorazio batzordea:**

Kirol Zerbitzuko teknikariek aztertu eta baloratuko dituzte aurkeztutako eskabideak.

**6.- Seigarrena: Eskaerak aurkezteko lekua:** dokumentazioa Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrean aurkeztu behar dira:

Sakanako Mankomunitatea  
Kirol Zerbitzua  
Uriz 32  
31830 Lakuntza  
Telefonoa: 948 464867  
E-posta: [erregistroa@sakana-mank.eus](mailto:erregistroa@sakana-mank.eus)

### **7.- Zazpigarrena: Eskabideak aurkezteko epea:**

2023ko abenduaren 12an amaituko da.

### **8.- Zortzigarrena: Diru- laguntzaren jakinarazpena:**

Sakanako Mankomunitateko lehendakariak dagokion ebazpena egin eta jakinaraziko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta argitaratutako hurrengoekin bat 2024ko urtarrilaren 31a, jasotzailearen zerranda eta zenbatekoak adieraziz; onartu gabekorik baleude, beraien berri ere bertan emango da zergatuekin batera.

### **9.- Bederatzigarrena: Bateragarritasuna:**

Deialdi honetako diru- laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain- finantzaketarik gertatzen ez bada.

### **10.- Hamargarrena: Datuen babesa:**

Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea.

	<b>DIRULAGUNTZA ESKAEREN OINARRIAK</b>	
---	--	--

*Xedea: Kirol Zerbitzuak hiritarrei eskainitako zerbitzuen kudeaketa eta, eskatuz gero, zerbitzuak antolatutako ekimenak eta informazioaren bidalketa.*

*Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko edota ezabatzeko eskubidea duzu, baita bestelako eskubideak ere, Mankomunitatearen bulegoetara edo [info@sakana-mank.eus](mailto:info@sakana-mank.eus) helbidera joz.*

*Informazio gehiago: Pribatutasun Politika [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) helbidean.*

*Besteren datuak:*

*Tramitazioan, hura burutzen ari den pertsonaren aparteko norbaiten datu pertsonalak sartu beharko balira, egin aurretik hirugarren pertsona horri aurreko paragrafoan bildutakoaren berri eman beharko zaio, eta haren berariazko baimena eskatu, hala beharko balitz.*

#### **11.- Hamaikagarrena: Errekurtsoak.**

*Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio ebazpenen aurka, ondoko errekurtsoak aurkezten ahalko dira:*

- *Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren egile den organoari zuzendua. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina hilabeteko epean.*
- *Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.*

*Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.*